

Rio+20

Jarrera Dokumentua

EKOLOGISTAK
EUSKAL HERRIA
m a r t x a n

www.ekologistakmartxan.org

Edukien aurkibide

1. Testuingurua.....	3
2. Zer aldatu behar da.....	3
3. Elementu garrantzitsuak Rio+20ri begira	4
3.1. Baliabide naturalak.....	4
3.1.1. Ekoeraginkortasuna versus baliabideen muga.....	4
3.1.2. Desakoplamendua.....	5
3.1.3. Erregai fosilen agortzea	5
3.1.4. Lur-akaparamendua	5
3.1.5. Naturaren merkaturatzea eta baliabide naturalen finantzarizatzea	6
3.2. Ekonomia berdea.....	6
3.2.1. Teknologiaren kontrola.....	7
3.2.2. Gezurrezko “konponbide” teknologikoak	8
3.2.3. Energia berriztagarrien mugak	9
3.2.4. Agroekologia eta elikadura burujabetza	10
3.3. Gobernantza	10
4. Proposamen zehatzak	11

1. Testuingurua

2012ko ekainaren 20tik 22ra, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Hitzaldia - Rio+20 izenarekin ezagunagoa- burutuko da Rio de Janeiron (Brasil). Hitzaldi hau, aurrekaririk gabeko mundu mailako krisiaren eta gizarte eta lan-eskubideekiko erasoen testuinguruan burutuko da. Rio92n, munduko liderrak jada bildu ziren mahai gainean jartzeko pobrezia, baliabideen eskurapena, ingurumen-narriadura... eta arazo horiek konpontzeko agenda bat abiarazteko.

Sintomak, hogeitau urte beranduago, argiak dira. Planeta, orain, orduan baino kapitalismo neoliberalaren krisi sistemiko sakonagoan dago. Batetik, ingurumenaren egoera gaur, oro har, atzokoa baino okerragoa da.

Baliabideak gero eta erritmo biziagoan agortzen ditugu, sorturiko hondakinak xurgatu behar dituzten estolda-zuloak agortzen ditugun bezala. Bioaniztasunaren suntsipena, egun, aurrekaririk gabeko erritmotan gertatzen da. Ekosistemak degradatu egiten dira eta funtzionalitatea galtzen dute klima erregulatzeko, elikagaiak emateko, ura garbitzeko, etab. Lurrek emankortasuna galtzen dute. Urak eta atmosferak gero eta kutsadura arazo handiagoak dituzte. Deforestazio arazoek gora egiten dute. Berotegi-efektuko gas-isuriak ez dira murrizten. Ziklo biogeokimikoen nahastea ikusten ari gara. Espezie inbaditzaileak gero eta mehatxatzaileagoak dira...

Aldi berean, gosea, pobrezia murrizketa edo oinarrizko baliabideen eskurapena, urarena, kasu, konpondu gabeko arazoak dira oraindik. Gehien eta gutxien dutenen arteko aldeak ere zabaltzen jarraitzen dute.

Gainera, krisi sistemiko honek erantzule berberak baina berezituak ditu: Iparralde Globala (zehazki, erosteko ahalmen eta kontsumo handieneko Estatuak, hiriburuak eta biztanleria) Hegoalde Globala baino askoz ere erantzuleagoa da historikoki.

Irakurketa argia da: ez da egon borondaterik aurretik aipatu arazoaren oinarrian dagoen gizarte eta ingurumen-bidegabekeria egoera konpontzeko.

2. Zer aldatu behar da

Ekologistak Martxanen aburuz, gizarte eta ingurumen-bidegabekeria honek iraun ez ezik, sakonagoa ere bihurtuko da, bermatzen duen eredu ekonomikoa aldatu ezean: etengabeko eta amaierarik gabeko hazkundean oinarrituriko eredu, gero eta baliabide gehiago kontsumitu behar dituen funtzionatzen jarraitzeko, eta ingurumenaren eta biztanleria kaltetuenen kontura baino ezin dezakeena egin.

Egungo sistema banakoaren etekina ahalik eta denbora gutxienean maximizatzean oinarritzen da. Horretarako, mundu mailako baliabideen kontsumoak ezin dio hazteari utzi. Herrialde (eta klase) aberastuak gero eta gehiago lehiatuko dira zenbait baliabide lortzeko (jada ez dituztenak) hauek dauden tokian eta eskuratzea merkeen den tokietan (herrialde pobretuetan), tokiko biztanleriak horiek eskuratu ahal izatea kolokan jarrita, arriskuan jarrita tokiko biztanleen elikadura burujabetza, bizimodua, euren aire eta ura pozoituta (legeria bigunak edo legeria ezak babestuta), hondakin eta isuri kutsatzaileak esportatuz (jada ez direnak herrialde aberatsen lurraldeetan egongo), eta hori guztia soldata-kostuak eta gizarte-babesa murriztuta. Ekoizpen-makineria handia, beharrezkoa ekoizpenak hazteari utziko balio behera etorriko litzatekeen kreditu eta finantza-ekonomia gurpilari eusteko. Herrien esplotazioa justifikatzen duen sistema, gerra tresna moduan erabiltzen duena bere kontrol eta zapalkuntza geopolitikorako, demokrazia usteldu eta perbertitzen duena eta formula populista eta neofaxista oso arriskutsuetara daramana.

Beraz, gizarte eta ingurumen-krisi hau konpontzera bideraturiko nazioarteko edozein saiakerak aurretik ulertu behar du ezin duela kapitalismoa zalantzan jarri barik egin.

Duela 20 urte, ahots askok esan zuten hazkunde ekonomikoak justizia soziala ekarriko zuela eta, pobrezia konponduko zuenez, ingurumen-narriadura ere konponduko zuela. Egun, argi egon beharko litzateke hain zuzen alderantzizkoa gertatzen dela: mugarik gabeko hazkunde ekonomikoko eredu bat ezin da izan planeta mugatu batean, agortzea eragiten duelako, eta biztanleriaren sektore handiei bizimodu duina izatea eragozten dielako.

Era berean, ezin gara horren xaloak izan pentsatzeko mundu mailako krisia botere harremanak zalantzan jarri barik eta horiek irauli gabe alda daitekeela, mundua ez balitz bezala interesen arabera mugituko. Rio+20 ondorengoko agertoki baikor batean ere, munduko liderrek erabaki ausartak eta egokiak hartutakoan, egongo litzateke horiek praktikan jartzeko aukera? Bai ala bai, **erabaki egoki eta ausartek boterearen eta esplotazio eta menderakuntza harremanen mundu mailako egitura aldatu beharko dute**¹.

3. Elementu garrantzitsuak Rio+20ri begira

3.1. Baliabide naturalak

Baliabide naturalen agortzea da planetaren muga fisikoak ikusgaien jartzen dituen alderdietariko bat. Erregai fosilak erauzketa-mailarik handienetara hurbiltzen ari dira, areagotu egiten ari da nazioarteko lehia zenbait lehengai lortzeko...

Baliabideen Nazioarteko Panelak, Nazio Batuen Ingurumen Programaren (NBIP)² mendekoak, onartu egiten du baliabideen eskurapenari dagokionez munduan bidezko banaketa izan dadin, mundu mailako kontsumo-mailak 2000 urteko berak izanda, baliabideen erabileran murrizketa gogorra beharko litzatekeela ekonomia aberastuetan (%66-80koa ere), eta neurrizko murrizketa (%10-20koa) berriki industrializaturiko zenbait herrialdetan; pobretuetan, horrela, materia eta energia-kontsumoa handi liteke.

3.1.1. Ekoeraginkortasuna *versus* baliabideen muga

Urritasunaren aurrean, gobernuetatik ematen diren erantzunak ekoeraginkortasunean oinarritzen dira nagusiki, hau da, gehiago ekoiztu gutxiagorekin. Ekologistak Martxanen iritziz, ameslaria da pentsatzea murrizketa helburu hauek eraginkortasuna bakarrik hobetuz lor daitezkeela. Gobernuak Rio+20n planteatu beharreko bidea, baliabideen agortzea konpontzeko, horien erabilerari dagozkion erabateko mugen ezarpena da.

¹ Ekonomia berdea: otsoa bildots-larruz janzten da.

http://www.tni.org/sites/www.tni.org/files/download/green-economy_es.pdf

² “Decoupling report”, NBIP

http://www.unep.org/resourcepanel/decoupling/files/pdf/Decoupling_Report_English.pdf

Herrialdeek murrizketa-planak egin behar dituzte baliabideen erabilerari dagokionez, beren "kuota ekologikoa"rekin bat egiten saiatzeko. Planek, asmo handiko xede lotesleak, neurgarri eta malguak, ezarri behar dituzte. Hortaz, *eraginkortasunaren* mantra *nahikotasunaren* mantrarekin ordezkatu behar da.

3.1.2. Desakoplamendua

Eraginkortasunarekiko fedearen oinarria da erabateko desakoplamendua egon daitekeela material eta energiaren erabileraren eta hazkunde ekonomikoaren (eta honen ondoriozko ingurumen-eraginaren) artean. Ekologistak Martxanen ustez, hau gezurtatu beharreko mito bat da. Hazkundearen logikari berezkoa zaion mundu mailako baliabide-kontsumoaren gehikuntzak gainditu egiten ditu eraginkortasun-hobekuntzak. Izan ere, gaur atzo baino eraginkorragoak gara lehengai eta energiaren erabileran, eta, hala ere, bien kontsumoak gora egin du mundu mailan. Frogatuta dago, gainera, errebote efektua dagoela, beraz, baliabide baten erabileran prozesu eraginkorrago batek baliabide horren erabilera handiagora eramaten dezake.

Bestetik, nabarmendu beharra dago ekoeraginkortasun neurrietarako abal gisa orokorrean adierazten diren desakoplamendu partzial edo erlatiboen atzean, sarri, ondorioen "esportazioak" ezkututzen direla: ekonomia batek bere bizitasun energetiko eta materiala murriz dezake, prozesu intentsiboenak kanpora eramaten baditu, beste herrialde batzuetan zenbatzeko. Rio+20n, beraz, herrialde bakoitzaren lehengai eta energia-kontsumoaren tranparik gabeko zenbaketarako oinarriak ezarri beharko liriateke, baliabideen bidezko erabilera antolatu ahal izateko. Mundu globalizatu batean, kontabilitateek ere globalak izan behar dute.

3.1.3. Erregai fosilen agortzea

Baliabide energetiko fosilen agortze nabari eta berehalakoak seinale garbia izan beharko luke norabidea aldatzeko. Are gehiago ez dagoenen ordezeko planik petrolioa bukatzen den unerako, horretan oinarritzen baita egun ezagutzen dugun munduaren funtzionamendua. Petroliorik gabe, pentsaezina litzateke egungo nekazaritzako elikadura sistemari eta garraioari eustea. Egundak ezagutzen dugun ekonomia globalizatua jasanezina izango da maila industrialeko elikagaien ekoizpena eta merkantzien garraioa eutsiezinak bihurtzen direnean. Ondorioz, Rio+20n erregai fosilen agortzeari pixkanaka egokitzeke

protokolo bat ezarri beharko litzateke, modu bidezkoago eta antolatuagoan joan ahal izateko fosil osteko jendarte baterantz. Protokolo honek erreserbak lur azpian gordetzeko beharra jaso behar du, bereziki bioaniztasun handiko eremuei edo erreserbaren eremuetan bizi diren komunitate indigenei eraginez gero.

Rio+20n, era berean, krisi energetikoaren aurrerako ihesak ekidin behar dira, teknologia arriskutsuetan oinarrituak eta egungo eredu agortua iraunarazi baino ez dutenak egiten: nuklearra, nekazaritzako erregaiak, biomasa forma desberdinak, biologia sintetikoa, etab.

3.1.4. Lur-akaparamendua

Rio+20 Hitzaldiak neurriak egituratu behar ditu hegoaldeko herrialdeetan multinazional handiek sortzen dituzten lur-akaparamendu larriak gelditzeko, horrela baliabide estrategikoen kontrola ziurtatzen baitute, elikagaien ekoizpena, bazkak, beste biomasa begetal forma batzuk, zura, mineralak... Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, nazioarteko inbertitzaileek jada eskuratu dituzte 50-80 milioi hektarea inguru hegoaldeko lurraldeetan, gehienak Sahara Azpiko Afrikan³. Sarri, lur horiek ez zeuden hutsik eta bertako komunitateek lantzen zituzten, baina bat-batean kendu egin zitzaizkien⁴.

3.1.5. Naturaren merkaturatzea eta baliabide naturalen finantzarizatzea

Naturaren gainean gero eta presio pribatizatzaile eta merkaturatzaile handiagoa dago, ekosistemei eta gizakiarentzat zuzeneko baliagarritasuna duten bertan garaturiko prozesuei ("ingurumen-zerbitzuak" deritzenak, esaterako, karbonoaren zikloak, lurreko elikagaiak eta urarenak, elikagaien ekoizpena, ezaugarri terapeutikoak dituzten substantzia, etab.) moneta-balioa ematera bideratua.

Gero eta baliabide gehiago, oraindik neurri handi batean ondare publikoari dagozkionak, pribatizatuak eta finantza-tresna bihurtuak izateko arriskuan daude (espekulazioaren mende, ondoriozko burbuila berrien agerpenarekin batera, bertan prezioak izugarri igo ahal izateko). Prozesu honek, ura edo elikagaiak bezalako bizirauteko oinarri-oinarrizkoari eragin diezaiolke.

3 « Land Tenure and International Investments in Agriculture »

http://www.google.com/url?q=http://www.fao.org/fileadmin/user_upload/hlpe/hlpe_documents/HLPE-Land-tenure-and-international-investments-in-agriculture-2011.pdf&sa=U&ei=478KT-yRMYPD8QPx6-iaAQ&ved=0CBAQFjAG&client=internal-uds-cse&usq=AFQjCNGc--0Ag2dP7WecaFT7cJVDY12PLA

4 <http://www.fian.org/noticias/noticias/nyeleni-mali-una-alianza-mundial-contra-el-acaparamiento-de-tierras/pdf>

Beraz, gobernuek muga jarri behar diote ekosistemen funtzioen pribatizazio eta merkaturatzeari, hala nola ura eta bioaniztasuna bezalako denon ondasunenari, politika eta legeen bitartez horiek eskuratzeko eskubide unibertsala ezarrita.

Gainera, ezin dute alde batera utzi finantza-ekonomiaren mugei buruzko eztabaida. Gobernuek burbuila espekulatiboekin bukatu behar dute, adibidez, monetak oinarrizko elikagaien saski bati edo biztanleriari lotuz.

3.2. Ekonomia berdea

Gai hau izango da hitzaldiko hizpide nagusia. Ozenki iragartzen ari da ekonomia berdea izango dela bide berria, *bussiness as usual*-en bestelako aukera arduratsua. NBIPk honela definitzen du: "karbono-isuri gutxi duena, baliabideei dagokienez eraginkorra eta sozialki inklusiboa"⁵. Ekologistak Martxanen ustez, baina, helburu hauek ez dira nahikoak, eta ez dira lortuko egun mahairatzen ari denarekin. Gaur planteatzen den ekonomia berdea beste kapitalismo forma bat delako, eta horren egiturari dagokion logikaz, inoiz ezingo da inklusiboa izan, desberdintasunean oinarritzen den heinean. Izan ere, ikusi dugu baliabideen eraginkortasuna ez dela nahikoa. Eta isurien murrizketa, hein handi batean, gezurrezko konponbide teknologikoetan oinarrituta egongo delako, eta ez herrialde aberastuetan ekoizpena eta kontsumoa murriztean, herrialde pobretuenetan ongizate materiala maila duinetara iritsi arte areagotzea ahalbidetuta.

Garrantzitsua da azpimarratzea nork kontrolatuko duen ekonomia berdea: enpresa handiak izango dira, modu sintomatikoan gobernuek eurek baino interes handiagoa agertzen dutenak hitzaldiari dagokionez. Enpresa hauek eskuak igurzten ari dira ekonomia berdeak ekarriko duen negozio aukeraren aurrean, ura, energia, hazi, arrantza eta nekazaritzaren merkataritzarako, elikagaien prozesamendu eta merkataritzarako, substantzia kimiko, ongarri, plagizida, meatzaritza, farmazia, bioteknologiarena...

Eta beren botere ikaragarria egikarrituko dute hitzaldiari begira mundu mailako eztabaida jardunbide egokien zerrenda batekin ordezkatzeko, eta legeriak borondatezko eta

5 « What is the "Green Economy"? », NBIP.

<http://www.unep.org/greeneconomy/AboutGEI/WhatisGEI/tabid/29784/Default.aspx>

erantzukizun korporatiboari buruzko zuzentarauekin.

Izan ere, Erantzukizun Sozial Korporatiboari buruzko Konbentzio baten onarpena hitzaldiaren agendan dago. Ekologistak Martxanek enpresa handien estrategia honen kontra ohartarazi nahi du, euren negozioa areagotzera eta kritikak isilaraztera bideratua baitago. Nahitaezkoa da enpresek, biztanleriak eta politikariek mundu hobe baten alde bat eginda borrokatzen dutelako mito zabaldua gezurtatzea, bakoitzaren interesak erabat desberdinak dira eta. Ondorioz, interes sozial eta publikoa gailendu behar da, eta enpresak politikariek kontrol eta agindu demokratikopean ezarritako derrigorrezko arau eta estandarrek zuzendu behar dituzte.

Nahi dute biomasak, bere zentzurik zabalenean, funtsezko papera jokatzera agertoki berri honetan, ez bakarrik energia-iturri eta klima-aldaketaren ustezko konponbideetariko bat gisa. Erregai fosilen agortzearekin eta horren ondoriozko ezintasunarekin ekoizpen industrialaren oinarria izaten jarraitzeko, badirudi enpresa handiak oinarri biologikoko ekonomia berri bat ikusten hasi direla, non biomasa, lurreak edo itsasokoa, izango den eraldatu beharreko lehengaia, bioingeniaritzan oinarrituriko teknologien bidez (genomikoa, nanoteknologikoa, biologia sintetikoa), balio handiko produktu bilakatuta (elikagaiak, energia, materialak edo botikak)⁶. NBIPk bere txostenean (jada aipatua) planteatzen duenarekin bat eginda, agertokia prestatuta dago finantza-sektoreak milioiak inberti ditzan ekonomia berri honetan. Hortaz, egun oraindik erabilera publikoa duen edo denona den ondare naturalaren pribatizazio, merkaturatze eta espekulazio gehiago espero daiteke.

Bultzada honen aurrean, Ekologistak Martxanek eskatu egiten die Rio+20n bilduko diren gobernuei ekonomia berdearen definizio berria egiteko eta bere oinarriak ezartzeko lan egin dezaten. Hala, benetako ekonomia berdeak ekonomia ekologikoa izan behar du, ekosistemen mugen barruan jardungo duena eta bioaniztasunaren suntsipena geratzen lagunduko duena. Pertsonen zerbitzura egongo dena, ez etekinarenera. Toki mailan jardungo duena. Merkaturatze-zirkuitu motzak sustatuko dituen. Materialen zikloak itxiko dituen. Muturretik murriztuko duena lehengaien eta energiaren kontsumo osoa.

6 « ¿Quién controlará la economía Verde? » ETC Group.

http://www.etcgroup.org/upload/publication/pdf_file/ETC_wwctge_ESP_4web.pdf

Nagusiki eguzkia baliatuko duena. Tokiko energia-burujabetza sustatuko duena. Biztanleriaren benetako beharrak asetzea lortuko duena. Agroekologian oinarritua. Justizia eta berdintasun soziala, hala nola genero-berdintasuna ekarriko dituen. Komunitate indigenen eta tokikoen eskubide eta kulturak, hizkuntza eta ezagutzak errespetatuko dituen. Ekonomia ekologikoa da etengabe hazteko beharrik ez duena, ez kolapsatzeko. Horregatik, bere moneta-sistema ez da oinarritzen interes konposatuan, eta diruaren zirkulazioa interesik barik egiten da.

Ekonomia ekologikoak bakearen, lankidetzaren, elkartasunaren eta hazkuntza espiritualaren kulturaren heziketa sustatzen du.

3.2.1. Teknologiaren kontrola

Garapen eredu aldatzeko eragozpenak, zientziak eta teknologiak eragindako ondorioetarako konponbideak lortuko dituztelako itxaropen eta ustean bermatzen dira, eta horrek arazoaren errora ez jotzea ahalbidetzen du. Baina zientzia ez da ezagutza besterik gabe: zerbaitetarako eta norbaitentzat da. Beraz, garrantzitsua da Rio+20n eztabaida bat irekitzea, teknologia berde eta bidezkoa benetan zer den argitzeko, zientziaren beharrezko kontrol sozialaren eta beraren nahitaezko erabileraren inguruan hitz egiteko, jendartearen onurarako izan dadin eta ez lagun gutxi batzuen eta enpresa-korporazioen irabazirako. Adibide historiko ugari frogatzen dute teknologiak desberdintasun eta bidegabekeria sozialak gehi ditzakeela, eragina jasaten duten komunitateen interesak kontuan hartu ezean. Komunitateok beti hartu behar dute parte euren arazoaren konponbideen garapenean.

Era berean, hitzaldi honetan funtsezkoa da Zuhurtasun Printzipioaren balioa berreskuratzea, bazegoena Rio 92n, baina egun epe motzeko interesek sarri baztertzen dutena.

3.2.2. Gezurrezko “konponbide” teknologikoak

Baliabideak agortzearen, klima-aldaketaren, kutsaduraren... aurrean, korporazio eta gobernuetatik ondorioak saihesteko bideak bilatzearen alde egiten da, haiei aurre egin beharrean, sarri konponbide gisa aurkezten badira ere. Hala ere, “konponbide” hauek ekartzen dituzten arazo eta gizarte eta ingurumen-ondorio berriak ezkutatu edo

mozorrotu egiten dira, eta, gainera, krisian dagoen eta jasanezina den eredu bat iraunarazteko balio dute.

Hala, CO2 isuriak murriztu ordez, horiek harrapatzea planteatzen da; erregai fosilen erreserbak (munduaren beroketaren arduradunak) agortzen badira, energia-kontsumoa murriztu eta berriztagarrien aldeko apustua egin ordez, haustura hidraulikoa bezalako teknikak garatzen dira iturri berriak eskuratzeko, eskisto-gasa, kasu; egiaztatzen bada nekazaritza industrialak asko bultzatzen duela klima-aldaketa, eredu agroekologikoetara jo beharrean, eredu bera betikitzen da, klimari dagokionez onura zalantzarriak dituen zuzeneko ereitea bezalako teknikak erabiliz arintzen saiatzen da...

Ekonomia berdearen Troyako zaldia diren teknologia ugari daude, konponbide moduan aurkeztuak baliabideen urritasunerako, segurtasun energetikorako, ingurumena leheneratzeko, isurien murrizketarako, elikadura-segurtasunerako, klima-aldaketa arintzeko... Horien artean transgenikoak eta genetikoki eraldaturiko beste organismo batzuk daude, egur-ikatz (ikatz begetala hedatzea epe luzera karbonoa egonkorragoa den lekuetan), biologia sintetikoa (erabat sintetikoak diren organismoak sortzea erregaiak sortzeko, CO2 harrapatzeko...), karbonoaren bahiketa (CO2 harrapatzea eta biltegitratzea toki "geologikoki egonkorretan"), geoingeniaritza (mundu edo toki mailako klimaren aldaketa masiboa, klima-aldaketa itsasoen ongarritzea edo zerua aerosolekin bonbardatzea bezalako teknikekin borrokatzeko), nanoteknologia (materiaren manipulazioa nanometro baten eskalan ezaugarri erabat berriak izango dituzten substantziak eta materialak ekoizteko)...

Hala ere, teknika hauek, garestiak izateaz eta inbertsio handiak behar izateaz gain (nahitaez beste partida batzuetatik eratorriko direnak), edo ez daude bermatuta beren segurtasunari dagokionez, kasu batzuetan, edo zuzenean kaltegarriak direla frogatu da, beste kasu batzuetan. Gainera, teknologiaren historian halako kasu ugari daude, alegia, arazo jakin batzuk konpontzeko panazea bihurtuko ziren ustezko mirari teknologikoak puxika bat bezala husten dira azkenean, ikerketa-aldi luzeen ostean eta funts asko ordainduta (sarri publikoak).

Ekologistak Martxanek zera planteatzen die Rio+20n bilduko diren gobernuei: ez ematea amore enpresa handiek merkatu hauek zabaltzen jarraitzeko egikaritzen duten presio handiaren aurrean eta klima-aldaketa, baliabideen agortzea, kutsadura, CO2 isuriak,

pobrezia eta gosea eragiten dituzten benetako arrazoiei heltzeko ausardia izatea eta eraldatzeko aurre egitea. **Gezurrezko konponbide teknologikoen aurrean, nahitaezkoa da gizarte eta ingurumen-justizia aurrez aurre jartzea.** Krisian dagoen baliabide mugatuko mundu batean, aberastasunaren birbanaketari eta benetan iraunkorra izango den eredu bateranzko trantsizioari lagunduko dioten ekintzak lehenetsi behar dira, abentura teknologikoen gaintik, desberdintasun gehiago sortu eta erakunde demokratikoen ahultzea baino ez baitute ekartzen, korporazioen boterea areagotu egiten den bitartean, esperientziak erakutsi digun bezala.

NBIPk planteatzen du *ekonomia berderanzko* trantsizioak nahitaez behar duela korporazio eta inbertitzaile handientzat erakargarria izatea. Dena den, paradigma benetan aldatuko badugu, ingurumena babesteko politikak ezin dute jarraitu sabai mugatzaile gisa merkatu askeko eskubide eta interesak edukitzen. "Konponbide" teknologiko hauek, beraz, ez diote aldaketa horri lagunduko; alderantziz, ziurrenik arazoa larriagotu egingo dute, kasu askotan.

3.2.3. Energia berriztagarrien mugak

Rio+20n energia hizpide izango duten eztabaiden abiapuntuak izan behar du herrialde aberastuek egiten duten energia-kontsumoa unibertsal bihurtzea ezinezkoa delako premia argia. Gobernuak, ondorioz, ibilbide-orriak ezarri behar dizkiote beren buruari, modu garrantzitsuan bideratuta, akordio lotesleekin, energia-kontsumoa murriztera, bereziki berriztagarriak ez diren iturrietatik eratorria. Energia berriztagarriekin ere ezingo litzateke egun duguna energia-kontsumo maila hornitu, kontuan hartuta, gainera, badagoela mundu mailako goranzko joera. Energia-iturri berriztagarriek kontuan hartu beharreko hainbat muga dituzte: biltegitratzeko eta banatzeko arazoak, etab. Gainera, aldi baterako erronkak dituzte (ez dira egun batetik bestera instalatzen), aurrekontuari dagozkionak (apustu publikoak behar dituzte abiarazteko), hala nola material eta energetikoak (inbertsio materiala behar dute egingarriak izan daitezen, beste erabilera jasangaitzen kalterako). Nabaria denez, eguzki-energia eta eolikoaren modukoek garatzen jarraitu behar dute, baina betiere beste iturri kutsatzaileago batzuk erabat murriztearen kontura.

Hala ere, berriztagarrietan egiten diren ahalegin nagusiak ez daude bideratuta eguzki-energia edo eolikia bezalakoetara, alderantziz, garapen handiena uzta eta biomasaren

erreketara zuzenduko da. Erein daitekeen lur gero eta gehiago nekazaritzako erregaiak ekoiztera bideratuko da. Zalantzarriak diren eta etengabeko ika-mika eragiten duten balantze energetikoekin, laborantza hauek, gainera, presio garrantzitsua egikaritzen ari dira bioaniztasun handiko eremuetan, hegoaldeko nekazari ugari beren bizimoduetatik botatzen ari dira, eta arriskuan jar lezakete, prezioen igoera dela medio, oinarrizko elikagaiak eskuratzeko ahalmena.

Azkenaldian garatzen ari diren beste biomasa-iturri batzuk (biomasa begetala alga natural edo sintetikoetatik aurrera), baso-biomasaren aprobeixamendua eta abar ere ez dira konponbide bideragarria eskala handian. Eta ezin dute mundu mailan erregai fosilen kontsumoa ordeztu; era berean, ez da zentzuduna karbono dioxido mailak (substantzia hauek murrizten ez dituztenak) egungoen pareko mantentzea.

Bestetik, gobernuek Rio+20n energia-iturrien gaineko herriaren kontrola sustatu behar dute. Ezin dira geratu dauden moduan, transnazional handien eskuetan. Baliabide estrategiko gisa, energia beti egon behar da interes orokorraren mende, baita bere plangintza (sorkuntza, garraioa, banaketa, tarifak, etab.) ere.

3.2.4. Agroekologia eta elikadura burujabetza

Petrolioaren agortzea, agroekologian oinarrituriko nekazaritzako beste eredu baterantz joateko aukera gisa ikusi beharko lukete Rio+20n bilduko diren munduko liderrek. Nekazaritza industrialak ingurumen eta gizarte-krisiaren arduradun nagusietariko bat da, eta eskala txikiko nekazaritza iraunkorra, egun elikagaien %70en ekoizlea⁷, funtsezko osagaia da munduaren beroketa, bioaniztasunaren suntsipena, lurzoruen degradazioa eta abar borrokatzeko. Ekologistak Martxanek eskatu egiten die munduko liderrei agroekologia gosearen eta pobrezia zati handi bat erazteko formula gisa ikusteko, eta konponbidearen erdian jartzeko, kalitatezko elikagaiak kantitate nahikoan ekoizteko gaitasuna areagotzeko duen ahalmenagatik, elikadura burujabetza bermatuta, planeta

7 « Un futuro alimentario viable ». Viklingsfondet.

http://www.utviklingsfondet.no/files/uf/documents/Rapporter/Un_futuro_alimentario_viable_es_parte_1_actualizada_y_revisada_web.pdf

“hoztuta”⁸, boterea nekazari txikiei emanda eta emakumearen funtsezko papera onartuta.

3.3. Gobernantza

Rio+20ko agendaren baitan nazioarteko ingurumen-arkitekturaren erreforma dago, munduko ingurumen-krisiari aurre egiteko hobeto kokatuta egote aldera. Egia da egun erakunde desberdinek eta legeriaren osagai desberdinek, sarri, arrazionaltasun, metodologia eta aldeen arteko lotura maila eskasa aurkezten dutela. Egun, NBEren mendeko 40 erakunde baino gehiago daude ingurumen-mandaturen batekin. Era berean, nabarmena da egun ingurumen-esparruko nazioarteko akordioak, batzuetan, konpromiso hutsak direla, babes gehiagorik barik eta aukera urriarekin errespetatuak edo beteak izateko. Horregatik, dauden aukeren artean, Nazio Batuen ingurumen-agintaritza bat jasotzen da (dela NBIP, dela jada badagoen beste erakunde bat, baina eskumen gehiagorekin, edo agian izaera berriko beste erakunde bat), botere eta diru gehiagorekin.

Ekologistak Martxanek, printzipioz, uste du positiboa dela nazioarte mailako ingurumen-mandatu sendotzea eta erakunde eraginkorrago bat eratzea, dela munduko Ingurumen-agintaritza baten bidez, dela antzeko erakunde baten bidez, zigor ekonomikoak ezartzeko gaitasunarekin.

Horretarako, hala ere, beharrezkoa da gizarte eta ingurumen-gaiak benetan lehenestea, merkatu eta korporazioen interes ekonomikoen gainetik, nazioarteko ingurumen-akordio bidez merkataritza eta finantza-erabakien esparruaren (MMA, IFIak...) gainetik egon beharko lirateke, maila sistemikoan koherentzia politikorantz aurrera egin ahal izateko.

Ingurumen-erabakiak gainerakoan aurretik lehenesteak, besteak beste, zuhurtasun printzipioa sendotzeko eta agertzen ari diren teknologien ondorioen gaineko kontrol eraginkorra egikaritzeko balio beharko luke, planeta eta pertsona arriskuan jartzen dituztenei betoa jartzeko gaitasunarekin.

Gainera, nazioarteko ingurumen-erabakiak errespetatu daitezzen, aurrekoa bezain garrantzitsua da Nazioarteko Ingurumen Auzitegi bat eratzea, horren aurrean erantzun

8 « Agroecología para enfriar el planeta ». Ecologistas en Acción, 2011.

dezaten nazioarteko legeria errespetatzen ez duten gobernu eta korporazioek.

Ekologistak Martxanek uste du, gainera, nazioarteko gobernantzaren erreforma batek erakundeen demokratizazio-prozesu bat ekarri behar duela, biztanleriak iritzia emateko eskubidea ez ezik, erabakiak hartzeko orduan modu aktibo eta benetakoan parte hartzeko eskubidea ere izan dezan. Hortaz, erabaki gehienak esparru tokikoenetan hartu beharko dira, eta mundu mailakoena dakarrena baino ez da erabaki beharko esparru horietatik.

Etorkizuneko munduko ingurumen-agintaritza erabat gardena izan behar da, eta bertan funtsezko papera izan behar dute jendarte zibileko erakundeek, interes publikoen behatzaile eta bermatzaile moduan. Bestela, enpresa-interesak dituzten lobby handien presioaren mendeko erakunde ilunak eratzeko akatsean eroriko litzateke berriz.

4. Proposamen zehatzak

- Baliabide naturalak eskuratzeko Eskubide Unibertsalaren ezarpena. Horien eskurapen ziurraren mende egoten da sarri etxebizitza, elikadura, osasuna... eduki ahalizatea. Eskubide honen ezarpenarekin batera, berau bermatuko duten neurriak ezarri behar dira.
- Finantza-sistemaren erreforma-prozesuari ekitea, monetak balio fisikoekin lotzeko eta interes konposatuarekin ibiliko ez den moneta-sistema bat sortzeko. Honek banku publikoa sortzea ekarriko luke, jendarteek demokratikoki erabakitako proiektuak finantzatzeko.
- Finantza-eragiketa espekulatiboen gaineko tasa baten (Tobin tasa) ezarpena nazioarte mailan, mugimendu espekulatiboak eragotzi edo mugatzeko.
- Baliabideen erauzte eta erabileraren eta hondakin sorkuntzaren kontabilitate-sistema baten ezarpena, modu fidagarriagoan islatzeko ekonomia bakoitzak planetan duen benetako eragina. Hala, karbono fluxuak, ur birtuala, energia txertatua eta abar, egoki hartu behar dira kontuan erantzukizun berezituak

egokitasunez eta benetan ezarri ahal izateko.

- Planen ezarpena, herrialde aberastuetan baliabideen erabilera murrizteko, beren "kuota energetikoa"rekin bat egin arte. Planek asmo handiko helburuak, neurgarriak eta lotesleak ezarri behar dituzte. Herrialde pobretuek plangintza adimentsua ezarri behar dute baliabideen erabilerari dagokionez, biztanleriak bizi-maila duinak lortu ahal izateko, eta, aldi berean, Iparralde Globalak erdietsi duen xahubide eta desberdintasun bidea jarraitzea ekiditeko.
- Energia-erabileraren murrizketa-planen ezarpena, bereziki berriztagarria ez denarena. Plan hauek asmo handiko helburu lotesleak, neurgarriak eta eskagarriak ezarri behar dituzte, muga absolutuak barne.
- Nekazaritzako erregaien egungo politiken mugen ezarpena, bioaniztasun handiko eremuetan egikaritzen duten presioa eragozteko zein egun nekazari-komunitate ugarritan dituzten ondorio sozial eta ekonomikoak saihesteko. Nekazaritzako erregaiak, elikadura edo industri azpiproduktuetatik lortuak, garatu eta baliatu egin behar dira, baina inoiz ez elikagaien ekoizpena duten lurrengatiko lehia dakartenak, edo nekazaritzako mugaren hazkundera bioaniztasun handiko ekosistema ahulen kontura ekarriko dutenak.
- Iturri berriztagarrien tokiko energia-ekoizpena sustatuko duten neurrien ezarpena. Prozesu bat abiaraztea energia-ekoizpenaren kontrol sozial eta demokratikoa erdiesteko.
- Erregai fosilen agortzeari egokitzeko nazioarteko protokolo baten ezarpena. Protokolo honek erreserbak mantentzea jaso behar du, bereziki bioaniztasun handiko eremuei edo erreserbaren eremuan bizi diren komunitate indigenei eraginez gero.
- Herrialde pobretuetan korporazioek egiten duten lur-akaparamenduarekin bukatzeko muturreko eta premiazko neurrien akordioa. Lehen urrats moduan, pertsona fisiko edo juridiko atzerritarrek lur edo ondasun higiezinak eskuratzeari erabateko muga jartzeko nazioarteko protokolo baten ezarpena.
- Agroekologiaren sustapena mailarik handienez, klima-aldaketaren kontrako

borrokarako eta elikadura burujabetza sendotzeko tresna gisa. Nekazaritza industrialarekin lotutako jarduerak ez sustatzeko mekanismoak abiaraztea. Nazioarteko tasa nekazaritzan nekazaritzako kimikoak erabiltzeagatik, plagen borroka biologiko, hezitako barietate eta arrazen aniztasun genetikorako eta abarrerako I+D+i programetara bideratuko dena.

- Zuhurtasun printzipioa berriz balioestea eta sendotzea. Printzipio horren aplikazioa bermatuko duten mekanismoen ezarpena, *sine qua non* baldintza gisa txertatuta ingurumenarekin lotutako nazioarteko hitzarmen eta protokolo guztietan.
- Teknologiaren erabileraren, horren kontrol sozialaren edo jendarteari dakartzkion onuren inguruko nazioarteko eztabaida serioa. Teknologia bidezko eta berdeak definitzeko kode baten lanketa.
- Bioaniztasuna bizitzarako funtsezko herri-ondasun gisa onartzea, merkaturatu edo pribatizatu behar ez dena, bere kontserbazioa beste interes ekonomiko edo politiko batzuen gainetik lehenetsita.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboari buruzko Konbentzio baten onarpenari errefusa. Enpresentzako derrigorrezko ingurumen-araudien ezarpenak borondatezko arautzearen gainetik egoten jarraitu behar du.
- Nazioarteko ingurumen-gobernantzaren sendotzea, *statu quo* berria ahalbidetuko duena, ingurumenarekin eta gizartearekin loturiko erabaki eta akordioen hierarkia-maila merkataritza eta finantza-interes eta akordioen gainetik egon dadin. Munduko Ingurumen Agintaritza baten ezarpena, zigor ekonomikoak ezartzeko gaitasunarekin eta erabat gardena, jendarte zibilak funtsezko papera izanda interes publikoen behatzaile eta bermatzaile moduan.
- Nazioarteko Ingurumen Auzitegi baten ezarpena, nazioarteko legeria urratzen duten gobernu eta korporazioak epaitzeko gaitasun eraginkorrarekin.

Ecologistas en Acción eskatu egiten die Rio+20n bilduko diren gobernuei paradigma aldaketa ekidinezin eta urgentearen oinarriak ezartzeko. Berandutu barik, bizitzeko eta gure burua antolatzeko eredu berri bateranzko bideari ekin behar diogu, gizarte eta ingurumen-justizian oinarrituta bidegabekeria eta suntsipen sorgin-gurpil ero hau geldituko duena, eta bizitza, bidezketasunez, planetaren ahalmen eta erritmoen barruan garatzea ahalbidetuko duena.

Azkenik, Ecologistas en Acciónek dei urgentea egin nahi die munduko gobernuei aukera hau oso serio har dezaten. Gizateriak itzulezinezko puntuak ekiditeko duen denbora, bereziki klimari eta ingurumenari dagokienez, jada urria da.

Zentzugabekeria hau gelditu ezean... Río+40 ezingo da izan!